



Gure enpresak hasierako inbertsio handia dauka: kafe makinak, lokalaren alokairua, mahiak...

Gaur egungo eta herrialde honetako hasierako kostua 35000€ izango litzateke, Gainera ekoizpenari dagozkion hainbat kostu izango ditugu: kostu aldakorrak. Kasu honetan, ezin izango dugu jakin hileko kostu aldakorren balio totala, lehengaien prezioaren eta kantitatearen arabera baita.

Lehenago aipatutako kostu hauek, kostu ekonomikoak dira, gure negozioak, ez baitu kanpo kosturik edukiko (ingurumenarekin eta gizartearekin erlazionatutakoak). Beraz, negozio honen kostu guztiak barne kostuak izango dira (kostu finkoak eta kostu aldakorrak).

